

ERIC FEFEBERG / EPA

PREBENTZIO POLITIKA handiek eta gaitzaren aurkako borrokan erabilitako dirutzak herrialde batzuetan BPGren %10etik gora ez dute hiesaren hazkunde gerarazi Afrikan. Aitzitik, GIBez kutsatutako pertsonen kopurua gero eta handiagoa da. Tasak ikaragarriak dira, eta, adituek iragarri dutenez, okerrera etortzear dago. Dagoeneko malaria eta beste gaitz kutsakor arruntak gainetik dago hiesa.

Afrikako hegoaldeko bederatzi herrialdeetan 15-49 urte bitarteko 1,4 milioi lagun kutsatu ziren iaz birusaz. Horietatik erdiak baino pixka bat gehiago Hego Afrikan zenbatu ziren.

Eskualdeko lau herrialderik kaltetuenetan egin diren kalkuluen arabera Zinbawe, Botswana, Namibia eta Swazilandia, adin tarte horretako pertsonen %20-26k GIB birusa edo hiesa dute, eta beste herrialde batzuk kopuru horietara ari dira iristen. Zinbawe ari da jasaten egotarik larriena. Bertako Hies gaitzaren Koordinazio Programak Nazionalak egin dituen kalkuluen arabera, Zinbaweko 12.5 milioi biztanleen laurdenak hiesa sortzen duen birusaz kutsaturik daude. Herrialde horretan jarritako 25 behaketa lekuetatik 23tan ikusi zuten haurdun zeuden emakumeen artetik %25-50k GIBez kutsatuta zeudela. Gutxienez emakume horien heren batek bere haurrak kutsatuko ditu.

Zinbawen bilduriko azken datuen arabera, astero 3.000 lagun inguru hiltzen dira Afrika hegoaldeko herrialde horretan. Horietatik %70 inguru hiesak eragindako gaixotasunen ondorioz hiltzen dira, hau da, egunean 300 lagun inguru. Urte amaierarako, Zinbawen 100.000 lagun inguru hilko dira hiesaren ondorioz.

Hemendik bi urtera, berriz, egunero 350 lagun hilko dira, eta 2005. urterako 15 urtetik beherako 900.000 umezurtz izango dira hiesarengatik. Ordurako hiesaz kutsatutako pertsonen ospitaleetako oheen bi herenak beteko dituzte.

«Orain badakigu, dagoeneko GIBez kutsatutako kopuru handiak ikusten ditugun arren, okerrera etortzeko dagoela. Eskualde hori sekula ikusi gabeko giza hondamendia ari da jasaten», adierazi zuen duela hilabete batzuk Unai NBEko GIB/hies saileko buru Peter Piotek.

Garapenerako hondamendia

Datuak esku artean, herrialde horien garapenerako hondamendia eragin du gaitzak. GIBak eragindako heriotza kopurua gero eta handiagoa da izurriak duela denbora as-



Gerrak ez direnean lehortek; gosea ez denean izurriteak. Eta azken urteetan hiesa. Afrikak burua altxatu ezinik jarraitzen du.

gorik – ez bizi-esperantzaren jaitzierak, ez familien diru sarreraren beharadak, ez osasun zerbitzu saturatuek, ez haurren hilkortasunaren igoerak, ez umezurtz kopuruaren handitzeak ezta estatuen eta enpresen diru galerek ere–.

Gaitz horrek gehien kaltetu dituen munduko bederatzi herrialdeetan (denak Afrikan), non gutxienez populazioaren %10 kutsatuta baitauden, 2000-2005 urteetan jaiotako haurren bizi esperantza 43 urtekoa izango da; egoera normalean 60 urtekoa izango litzateke, ordea.

«Horixe da okerrera. Hain zuzen ere, gazteen artean egin dezakegu lanik eraginkorra, frogatua baitago gazteek aintzat hartzen dituztela gaitz kutsakorak ez hartzeko emandako aholkuak. Tamalez adin horretakoak kutsatzen ari dira gehien gaur egun», adierazi du Piotek.

Ugandan eta Tantzania, esaterako, nerabeen infekzio tasak asko jaitsi dira, preserbatiboak erabiltzeko kanpaina aktiboari eta hiesaren inguruko hezkuntza kanpainei esker.

Herrialde kaltetuen goi bilera

Iragan astean, Maputon, Mozambikeko hiriburuan bildu ziren Afrikako bederatzi herrialde gai hau aztertzeko. Berehalako ondorioa atera zuten: hiesaren aurkako borrokan ahalegin handiagoa egin beharko dutela. Hain zuzen ere, ondorengo urteetan urtero 300 milioi dolar beharko di-

tuzte borroka eraginkorra izan dadin. Orain arte 150 milioi dolar erabiltzen ziren urtean. Beraz, aurrerantzean aurrekontuak bikoiztu beharko dituzte hiesari aurre egin ahal izateko.

Goi bilera horretan Unaidsek emandako datuen antzekoak azaldu ziren. Herrialde horien kalkuluen arabera, Afrikan 20 milioi lagun daude GIBez kutsatuta; horietatik lau milioi iaz kutsatu ziren. Birusaren hedapena gerazterik ez dute lortu, beraz. Datu larriena gazteen artean da: 2005. urterako GIBaren hedapena %25 haziko da 15-24 urte bitarteko pertsonen artean.

Etorkizun beltza, beraz. Gerrak ez direnean lehortek; gosea ez denean izurriteak. Eta azken urteetan hiesa. Afrikak burua altxatu ezinik jarraitzen du.

• Koldo Aldabe •

Hiesa: okerrera etortzear dago

Herrialdeen garapenerako sekula ez zen horrelako faktore kaltegarriarik ikusi

ko hasitako Afrikako herrialdeetan, birusa hartu eta azken fasera (hiesa) iritsitako pertsonen kopurua handituz baitoa. Guztira, 1998an, bi milioi lagun hil zituen hiesak Saharaz hegoaldeko herrialdeetan; eta urtero milioika lagun gehiago kutsatzen dira birusaz.

Neurtzeko erabilitako edozein neurri kontuan hartuta ere, beste ezein faktorek ez zuen eragin garapenerako arrisku handia-